

N u !



Abian da enpresetan euskara sustatzeko plana




"EUSKARAZ LARDASKATZEKO MANERAK"

AZAROAK 4, HITZALDIA



BIKOTEATROA

AZAROAK 5, ANTZERKIA



JOSUNE BEREZIARTU

AZAROAK 3, DIAPORAMA



TTAKUNPA

AZAROAK 6, KONTZERTUA

Kultur Astea 2004
Ez ezazu galdu

ALKARTASUNA

BASERRITARREN KOOPERATIBA

Naturalki

Janari ekologikoak
Piperminetarako ozpina
Talotarako artirina
Patxaranelarako anisa
Herriko babarruna
Baba txiki beltza eta zuria
Baratzarako landareak
Herriko sagardo aukera
Baratza eta loretako liburuak
Konpostagailuak
Zabatoak
Zakur jana eta kalu jana aukera
Egur ikatza
Saski, lepotar, zare, xexto...
Ukenduak
Txorientzako kabiak
Lanerako erropa eta oinetakoak
Eta abar...

Ugarte Industrialdea, 12 Tel.: 943 36 11 14

alkartasuna@usurbil.com

Bero-bero, euskaraz orain eta gero EUSKARAREN VI. MARATOIA

Lasarte-Oria, 2004ko urriaren 23an eta 24an



Lasarte-Oria Herria
Lasarte-Oria Herria



Gipuzkoako Foru Alduzkia



**Euskaraz, hautsi
zure marka**

Berrikuntza



ILEAPAINDEGIA

**Makilajea
Manikura**

URRIAK 29an

**MEDIKU
ESPEZIALIZATU BATEKIN
DOAINIKO KONTSULTA**



ZUBIAURRENEA 4 USURBIL

TEL.: 943 361 951

Txirrikitutik

Inauteriak gogora ekarriz, denok dakigu inauteriak tradizio ikatolikoa duten lurraldeetan ospatzen direla. Normalean, otsailaren bigarren hamabostaldian izan ohi dira, Hausterre-egunean, astelehenean eta asteartean hain zuzen ere. Dirudenez inauteriak garizumari kontrajarriz sortu ziren, eta berezitasunik aipagarriena mozarrotzea bada ere, tokian tokiko folklore eta ohiturei lotuta garatu da. Aipatzekoa da estatu espainolean Francoren diktadura bitartean, inauteriak ofizialki debekaturik egon zirela.

Gaur egun Euskal Herrian bi motatako inauteriak bereiz ditzakegu; batetik aspaldiko elementu sinbolikoak gorde dituzten inauteri folklorikoak (Zuberoako maskarak) eta bestetik hiriko inauteri modernoak (Tolosakoak).

Ondoko argazkia hau 1993. urteko inauteri egunean atera zen. Bertan, herriko gazteak zakuz jantzirik ageri dira. Guztiek aurpegi margoturik eta txapela buruan, herriko kaleetan zehar kalejirari ibili ziren, aste batzuk lehenago Ageri-Alde ikastetxea izan zenaren atzeko patioan egindako entsaioetan ikasitakoa azalduz.



EGILEA: I.A., 1993KO INAUTERIAK, KALEBERRIA
JABETZA: I.A.

Festak gualdean jarraitu zuen eta mozarrotu ziren guztiek frontoi aldeko musikaz gozatzeko aukera ez zuten galdu.

Zaloa Arnaiz Iburguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Ekitaldi erakargarriak antolatzen saiatu gara.

Aurkibidea

ZUTABEAN, NEREA ZINKUNEGI _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

NEKAZARITZA ETA LANDALURRA _____ 10. ORR.

NOAUA!REN ESKUTIK, KULTUR ASTEA _____ 12. ORR.

Hitzaldia, kontzertua, diaporama, antzerkia... Ez galtzeko moduko astea antolatu dugu. Ez ezazu galdu.



LOURDES JAUREGIBERRIREKIN SOLASEAN _____ 14. ORR.

GRIPEAREN GARAIA DA _____ 16. ORR.

NESKAK, BERRIZ ERE, ESKUBALOIAN _____ 17. ORR.

GURUTZEGRAMA NOAUA! TXIKIN _____ 18. ORR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



NEREA ZINKUNEGI

Izen berria afer zaharrari: bullying

Garai batean klaseko "motzena", potoloena, betaurrekoduna, belarri haundia, ahoskera traketsa, baserri usaia, irakaslearen alaba, edo guraso "xelebreak" zituena bullying biktima da gaur egun. Eta gaur goizeko kontua izan ez arren, izen berria jarri diote afer zaharrari: bullying.

Gurutze Zipitria psikoterapeuta eta irakasleak honela definitu du guretzako etxekoagoa den matxakea: "bata bestearen gainetik jartzea, eta beste norbait gutxieste, denbora tarte luzean".

Oraingoan, ordea, aferak Jokin du izenburu eta...nola esan? Oso gertukoa egiten zaigu, etxekoa. Jokin da gure Mikel, Ainara, Richar, Joxemi, ni, Ander... Eta Jokini jazotakoa dela eta, egunean bi orduz ikastetxera koarentena egoeran kondenatuta doazen zortzi ikasleak ere gure Aitor, Miren, Mikel, ni, Andoni, Karmele... dira.

Zeinek ez du inoiz harria bota edo kolpea jaso? Ahaztu egiten zaigu nolakoak izan garen, eta are larriago oraindik, nolakoak garen.

Gurutze Zipitria berak, guztiok gure buruari egiten diogun galderari, zergatik gertatzen dira bullying kasuak? Honela erantzun dio: "umetan gertatzen dira, helduok ez

garelako behar den bezalako ereduak. Guk irakasten diegun guztia hartzen duten belakiak dira umeak. Helduok bata bestearen gainetik pasatzen garela, elkarri traizioak egiten dizkiogula edo gure arrakasta lortzearen nor izorrratzen dugun ez zaigula axola ikusten badute, hori ikasiko dute".

Harrapazan/k! Gauzak horrela badira, helduon artean ere ematen da beraz bullying-a, gogoratu bestela lantegian, koadrilan, herri mailan...

Kontua da, bullying-ak ez dituela hamalau urte, bullying-ak sei, hamabi, hamasei, hogeitalau, berrogeita hamazazpi...urte ditu. Helduok, ordea, umeek eta nerabeek ez dituzten beste baliabide batzuk ditugu horrela koei aurre egiteko.

Ume nahiz nerabeak ditugu guztiok aldamenean, semea ez bada, iloba, arreba, ikaslea, laguna, biloba, alaba... eta lan erraza izan ez arren, erne guztiok! Izan ere, "hay algo aquí que va mal"!

OHARRA: idatzian agertzen diren izenak zoriz hautatuak izan dira, ez ditzagun orain mamuak ez dauden tokian ikusi.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

Ika-mika !

Joxe Domingo Aizpurua "Pitxas"-ek bi aste gose greban

Pitxas 2003ko martxoan atxilotu zuten Mauletik gertu. Azken garaian, Nanterre-eko espetxean aurkitzen da beste bi euskal preso politikorekin batera. Hauek dibisio berean izan dituzte azken garaian. Baina orain dela gutxi, zigor moduan banandu egin dituzte, bakoitza dibisio desberdin batera. Neurri honen aurkako protesta moduan eta berriz hirurak dibisio berean elkartu ditzaten eskatuz hiru euskal preso politikoei, Pitxas barne, borrokaldi bat hasi zuten, urriak bostean, bi aste iraun dituen gose greba bati ekinez. Bi asteren buruan 8 eta 9 kilo artean galdu dituzte. Dena den, borrokaldi honekin ezer ez dutela lortu salatu dute eta espetxeko zuzendaritzaren jarrera gogorra azpimarratu dute.

Bestalde Oihana Lizasok jasan zituen torturak direla eta

ondorioz ezarri zuten tortura salaketa artxibatua izan da, epaiketarik eta bestelako inongo tramitaziorik gabe. Besterik gabe, ia kasu gehienetan gertatu ohi den moduan. Beste behin ere, eta ehundaka dira kasuak, tortura salaketak epaitegiarekin egin du topo. Horma gor eta itsu baten aurrean jarritako salaketa izan da beste behin ere, Oihanaren hau. Hona berriz ere espainiar «justiziak» torturatzaileei eskeintzen dien inpunitate eta babasaren beste adierazgarri bat.

Presoen Eskubideen Urraketari Stop!!

Torturari Stop!! Torturatzaileen inpunitateari Stop!!

Askatasuna

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: azaroak 5. **Idatzia ekartzeko azken eguna:** urriak 29.

Postaz: NOAUA! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil - **E-postaz:** erredakzioa@noaua.com

Aurrera doa enpresa-munduan euskara erabiltzeko kanpaina

Buruntzaldea eskualdea osatzen duten Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek euskarazko egitasmoak elkarlanean sustatzeko hitzarmena sinatu zuten 2002ko martxoaren 14an. 2003/2004 ikasturterako onetsitako plana, betiere Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren hezurdurari jarraituz, hiru ildo estrategikoz eta 14 esparruz osatuta dago. Hiru ildo horietako bat euskararen erabilerekin lotuta dago: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintzarekin. Besteak beste, hizpide dugun enpresa munduarekin.

“Buruntzaldeko Lan-Munduan Eragiteko Planak” jasotzen duen moduan, enpresetan plan sektorial bat bideratu nahi da ikasturte berri honetan.

JARRAIPIEN BATZORDE

BATEN BEGIRADAPEAN

Enpresa munduan eragiteko plan hau aurrera eramateko, lehenik eta behin, Buruntzaldeko zein enpresa dagoen egitasmo honetan parte hartzeko prest

jakin nahi da. Eta hau da martxan jarri nahi den kontratazioaren helburua, euskara planari ekiteko asmoa duten enpresak zein diren jakitea eta planari ekiteko konpromisoa hartzeko gonbitea egitea.

Buruntzaldeko udalek kontratatu nahi duten zerbitzuak, beraz, bi zeregin nagusi izango lituzke:

1. Komunikazioaren atalari dagokiona. Buruntzaldeko udalek enpresa arloan eragiteko abian jarriko duten egitasmoa ezagutaraztea eta prestigiatzea izango da lan honen helburua.

2. Sustapen atala. Buruntzaldeko enpresa kopuru jakin bat bisitatu, euskara planaren nondik norakoa azaldu eta horrelako plan batean parte hartzera gonbidatzea izango da sustapen lan honen helburua. Bisitatu beharreko enpresak, gehienez, 60 izango dira, 10 herri bakoitzeko, eta enpresa hauen segimendua Buruntzaldean osatu den Jarraipen Batzordeak egingo du.

Jarraipen Batzorde honetan, euskara teknikariak hartzen dute parte, hala nola, sindikatuetakako ordezkariak eta enpresa munduko kideak.



ENPRESA MUNDUAN DRAINDIK BADA ZEREGIN UGARI.

Bisitatuak enpresari era honetako informazioa helaraziko zaio: euskara plan bat zer den, enpresari nola eragiten dion, prozesua eta epeak zeintzuk diren, finantziarazko aukerak zeintzuk diren eta Buruntzaldeko udalek arlo honetarako zer nolako egitasmoa duten.

Zerbitzu hau esleitzeko 8.000 euroko diru partida bideratuko dute Buruntzaldeko udalek. Kontratazioa erabakitzen denetik aurrera hiru hilabetezko epea izango da lana burutzeko.

Udalaren omenaldia jasoko du Amador Granado txirrindulariak

Atenasko Joko Paralinpikoetan lan txukuna osatu zuen Amador Granadok. Txirrindularitza egokituan, usurbildarra berriz ere munduko onenen artean izan zen. Dominak garesti zeuden, baina proga batean baino gehiagotan finalisten artean sailkatzea lortu zuen.

Udalak, orain, bere lana eta ahalegina aldarrikatu asmoz, eskerrak eman nahi dizkio agerraldi xume baten bidez.

Ekitaldia urriaren 23an izango da, larunbata, eguerdiko 12:00etan udal-txean. Eguerdiz egingo den omenaldian garaikurra jasoko du Amador Granado txirrindulariak.



Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

**MIKEL
IZ GI E**

ELEKTIZITATE

11 00 7
11 11 111

Noaua!!

Tren eta autobusen
neguko ordutegia
2004/2005

Ordutegiren bat behar baduzu, pasa zaitez gure bulegotik.

Noaua Kultur Elkartea

Mondragon 8 Eguzkitako Tel: 943 350 321



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Sinadura bilketa

Uztailaren bigarren hamabostaldian argitaratutako NOAUako aldizkarian, gure auzoaren etorkizunaz idatzi nituen lerro batzuk. Bertan neritzon, duela ia hogei urte Zumeta Jatetxearen aurreko baratzetan etxeak eraikiko zituztela agindu zutela; ikusirik ordea Udalak ezer egin ez zuela, berriz jo zen udaletxera eta auzotarren artean etxeak erosteko prest egongo ziren 8 laguneko talde bat osatzeko eskatu ziguten eta hori ere bete genuen. Baina lehenean geunden, ez baitzuten ezer egin.

Orain dela urte batzuk, berriz ere udalera jo genuenean, beste proposamen bat onartu zuen Udalak; hau da, Errota Etxea dagoen lekuan Babes Ofizialeko 10 bizitza egitea. Urteak pasatu dira eta oraindik Txokoalden ez da etxerik eraiki. Guztiz utzita eta abandonatuta dago auzoa.

Duela egun batzuk berriz ere Udaletxera jotzea erabaki dugu. Diotenez, lurrak Zatarainenak omen dira eta berak egin behar omen ditu etxebizitza horiek, Udalak egin duena baino gehiago

ezin omen du egin. Hala eta guztiz ere, hirigintza saileko langile batek lagundu digu idatzi bat presatzen, ahal den sinadura gehien bildu eta Zataraini eskutitz bat bidaltzeko.

Azkenik, eskerrak eman beharrean gaude beren sinadura eman duten auzotar guztiei, asko bildu baitira eta ea firma bilketa honek pixka bat pentsarazten dion lur hauen nagusiarri eta jabetzen den gure auzoaren egoera tamalgarriaz, agian zerbaitetarako balioko du gure ahaleginak.



ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Iparraldeko Orena umorez zipriztindua

Zer idatziko pentsatzen nabilela, ez zait Zbesten erremediorik geratzen barrenak hustu baino. EITB.

Musikazalea naizen aldetik neronek ditudan cd-ak, zintak ongi entzunak ditut. Eta zerbait berria topatu nahian irratia piztea otu zait. Piztu badut piztu dut, eta baita beste behin ere, sutan jarri (ez al naute gauza askotxok jartzen aipatu egoeran? Pentsatzen dut enetzat, baina...). Tartean euskal talde edo abesti batzuk entzun asmotan irrati publikoa sintonizatzen dut eta bi aukera: edo Hego Euskal Herriko eta Espainiako albisteak emango dituzten imitatzailer txarra baino txarragoak entzun edo Larrialdietara joango bagina bezala asko baino gehiago itxaron ondoren abesti euskaldunen bat entzun. Eskerrak EITBren lehen hizkiari!

Telebistan ere bada programa bat atal desberdi-

nak jorratzen dituen: lehiaketak, tertuliak, elkarriketak, zenbait albisteren iruzkinak (guztiak ere Hego Euskal Herrikoak eta Espainiakoak)... eta guztiak umorez zipriztindu nahi dituenak.

Umorea falta bazaigu eta eskuratzea helburu badute, ez dut umorea osasuntsua den aldetik-gaizki irizten. Baina horretarako, beste aldrebeskeri batzuren artean, pertsonaia ospetsuen azalean jarriz errazkeriaz gurtuko bagaituzke, eta gainera, zeresana duen elkarriketatuari denbora eta protagonismoa kenduko badio... adio.

Eta hau idaztera ni iritsi naiz. Baina zer gomuta egitera irits daiteke kausa honegatik nire samin bera sentitzen duenak, eta halaber, iparraldeko denak?! Oren bat eskaintzea nahiko da? Iparraldearen orena da!

Bestela ere nahiko lan duen herri honi ez diogu laguntza apur bat emango, ez!

Izaera zaharra, itxura berria

Kaixo NOAUA kideok! Oraingoan beti, edo Kaskotan behintzat bai, aipatu izan dugun gai bat jorratu nahi nuke, gure auzoaren inguruan hausnarketa batzuk egin asmoz.

Egungo Kalejarri begira jartzen naizenean pasaden mende hasierako Kalejar hura imajinatzen saiatzen naiz, gure aitona-amonon garaiko auzo txiki, xume baina aldi berean izaera propiodun herri gune hura dudarik gabe orduko bizimodua oraingoa baino gogorragoa zen. Etxe batzutan argi indarrak ere ez, arropak errekan garbitu behar, egurra biltzea ezinbestekoa zen bai otorduak prestatzeko baita etxe barruak bero mantentzeko ere. Honetaz gain abereak edo hazienda zaindu (plazako askara ura edatera ekarri lokatzez eta zuloz betetako bidexkan zehar), eta baratza txukun eta oparua mantendu. Eta testuinguru honen barruan, garai hartan, Espainian izan zen (baina Euskal Herriak sufritu behar izan zuen) Gerra Zibila eransten badugu, bizimodu gogorra bizi-raupenik latzenezan bihurtu zen.

Orain ordea, gauzak bestelakoak dira. Aurrerapenak edo garapenak bizimodua erosoago egin ahal izateko ekarri du. Errepide zabalak egin dira, etxe modernoak altxa dira, hazkunde garrantzitsu bat egon da biztanleriari dagokionez, haurtzaindegia ere badaukagu... Baina, orain erritmo bizi bizi gara, dena presaka egin behar dugu, arnasa hartzeko denborarik gabe. Estresa modako hitza bilakatu da eta erraustegi bat ere sartu nahi digute kosta ala kosta (gai hau beste baterako utziko dugu, oso emankorra baita).

Giza harremanek, ordea, aldaketa gutxi jasan dute. Beti ere bizi erritmoaren neurritan, baina auzotarren loturak jarraitzen du. Gutxi edo gehiago denak denen berri badugu, elkar ezagutzen dugu eta gure arbasoen garaiko harreman natural eta jator horrek bizi-bizi jarraitzen du. Eta hori gaur egun asko estimatzen den altxorra da!

Itxuraldaketa baten azpian betiko arima dago, motorra zaharra duen makina da, baina luzerako bermea duena. Bejondeikela Kalejar!

Kalejar



ANDONI
UDABE

Badator negua

Pilarika zubia pasa berria dugu eta berriro nor bere bizi moduan murgilduta gabiltza.

Auzoko giroari begirada bat eman ezker ez da aldaketa berezirik somatzen. Baina ikus daitete Santueneko atariko pasabidea zabaltzen ari direla eta lehen genuen ibilbide horretako arriskua arinduko delakoan gaude. Errotonda amaitzen dutenean mesedegarria izango dela diote adituek, bereziki, bertan ibili behar dutenentzat.

Udazkenean gaude eta hego haizea ibili denez, ondorengo euriaren eraginez txanpinoi mota desberdinak ere ikusi ditugu bertako zelai bazterretan. Zaletuak begiak argi dituzte. Piku arbolak ere beteak ikusten dira auzoko bazter batzuetan.

Eserlekuak ere jarriak ditugu bertan atsedena hartu nahi duenarentzat, baina oraindik ere haurren parkera hurbildu ezker kolunpioa hor

dago konpontzeko zain. Horrela dagoen bitartean haur txikiak ez dute aukerarik bertan ibiltzeko. Beraz, lanak piskanaka ari direla esan behar, aurrera doazenean ere ez da gutxi.

Eguraldia hoztutuzera dijoala eta berokiak ere prest daude auzoko bi dendetan. Goizean lanera edo ikastetxera joan behar dutenentzat edo haur txikiak epel-epel ibili ditezten. Beraz, hau izango litzateke auzoko egoera garai honetan. Besterik gabe hurrenarte ondo izan.

Atxegalde



MARIA
JESUS
URBIETA



PAKO
AGUDO

Santuenea

Oinez

Kaixo, badirudi azken bolada honetan kotxea aparkatuta uztea eta oinez mugitzeko ohitura hartzea modan dagoela. Nonnahi aurkitu ditzakegu orain kartelak, panfletoak eta iragarki mordoa transporte ekologikoaren alde... Bazen garaia aizu! Ez naiz bakarra egunero behintzat bi aldiz Ingemarreko luzea egiten dudana, luze horrek hitzegingo balu... Badakit gure auzoa pixka bat erretiratuoa geratzen dela herri guneetatik, baino Txokoalde eta San Esteban hurbilago ditugu, ez? Denoi luzatzen dizuet gonbidapena, egunero ez bada ere, oinez auzotik atera zaitezten. Horrela, seguraski kotxetik ikusten ez diren gauza askotan erreparatuko duzue. Adibidez, Ingemarreko langileak zertan ari diren asmatu ondoren gure zubi gaineko igoera-jeitxieraz disfrutatuko duzue. Ikusi al duzue zenbat bizi irabazi duen Oria ibaiak azken urte hauetan? Korkoiez aparte arrain mota desberdinak bizi direla ikus dezake-

zu orain. Baita "La 2"eko dokumentaletan agertzen diren argazkiak ere, kormoranak adibidez. Zubia bukatu bezain pronto usai berezia topatuko duzue, sagar usaia. Dagoeneko prestatzen hasiak dira aurtengo sagardoa Aialde-Berrin. Auzo erdirantz abiatuz, parketik pasako gara, hainbeste denboran itxoiten aritu garen konponketak egin ote diren zorrotz-zorrotz begiratu. Ez dugu lortuko lan horiek ikustea, baino behintzat auzo guztiak jakingo du ze ordutan, noekin eta nola iritsiko zaren. Ez da dena begiratzea izango ere, ehiztariek ere gogoraraziko digute, pixka bat despistatzen bagara, goiza, arratsaldea edota oso oso goiz den antzematen beraien ostu puskatze horrekin.

Besterik gabe agurtzen naiz, ea gida-baimena noizbait ateratzen dudana eta beste ikuspegi batetik ikusten ditudan gauzak, momentuz hau da dagoena.

Negurako prestatzen



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Berriro ere, heldu zait txoko honetatik zuei guztioi gure auzoaren berri emateko ordua, eta egia esan, zaila egiten zait betiko gaitan ez erortzea. Izan ere, ez zaigu gauza gehigirik gertatzen. Eta hobe. Alde batetik, argiena, farolak behintzat bai baititugu, nahiz eta oraindik lehengo neguko arazo berdinarekin jarraitu, eta pazientziaz hartuko dugu, ikusten baitugu dagoeneko kableak pasatzen ari direla eta, lehenago edo beranduago, argia izango dugula.

Neguari buruz ere hitz egin dezaket, urruti ikusten genuen arren jada ari baitzaigu bere beso hotzekin harrapatzen, eta egun hotz, euritsu eta ilunak berriz ere agertzen hasi baitira. Azken egunetan gure ttonttorrean izan diren ezkontzetako gonbidatuak ere atzeman dute etorrera hau, eta busti xamar atera zaie egun handi hau.

Jadanik prestatzen hasi beharko dugu, beraz, negurako. Laster ditugu bueltan arratsaldeko zazpiretan amaitzen hasten diren egunak, goiz

euritsuak, behe-lainoak eta kazkabarrak. Eta guzti honek erremediorik ez du, eta guk bi aukera ditugu, gogo txarrez aurrera eramane edota udaberriari bezala, neguari ere aurpegi ona bilatu, izan, bai baitu.

Hostoak erortzean, gainetik oinez egitean egiten duten soinu ederra, euriaren zarata etxeko goxotasunetik, ilunabar hotzak... bilatzea da kontua. Eta guk, gure txoko honetan berriz izango dugu negua, bere isiltasun eta lasaitasunarekin, larunbat lasaiak (ezkontza gutxiagorekin), eta San Estebandarrok goizean izaten dugun paisaia zoragarria, izan ere, gutxi dute guk bezala Usurbil lainoak hartuta ikusteko aukera, soilik Parrokiaren dorrea ikusten delarik. Ikusteko modukoa da.


Akabo festak

Aurtengo San Praixku jaiak ere bukatu dira. Aikuskituz ugari izan dugu, era guztietakoak gainera. Meza ederra, bost apaiza izan genituen bertan. Aspaldian ez genituen hainbeste batera ikusi. Aitziber eta Asier anai arrebak monagilo zirela eta Etxeberria eta Lizaso aita bertotan zirela benetan elizkizun ederra ospatzeko aukera izan genuen.

Esku lanak ere aipatzekoak ditugu. Hori da abilitatea daukatena eskuetan gure auzo eta inguruko emakumeak, tartean ere bada gizonezkoren bat. Benetan denak dira zoragarriak, baina bat aipatzekotan Jose Azurmendiren egurrezko lanak aipatuko nituzke. Lan hauek Guggenheim museoa jartzeko modukoak dira.

Bestalde, tiro platoan aginagatarren arteko lehenbiziko saria Xabier Muruak irabazi zuela 14 plater hautsi ondoren (Saltxipik jarritako kopa ederra eskuratu zuen).

Bestelako kontuak ere aipatu beharrea gaude.



Kanposantuko atea puskatu, barrura sartu eta egindako kusidatea, hain zuzen ere. Horrez gain, elizako ateari ere pintadak egin dizkiote eta bertako iragarki tabloia puskatu dute. Hauek izan dira festen ondorio kaxkarrak. Hurrengo urtean ez daitezela gertatu espero dugu.

Mila esker parte hartu duten guztiei.

Aginaga



**MARIA
ANJELES
ARRUTI**

Zubietako bidea

Aldenik alde zeharkatzen duen bide bakarra Adu Zubietak. Gainera baditu beste bideadar batzuk, eskasak, beti ere, aurrekoaren aldean. Laster izango ditu izan beste bizpahiru kale. Zubietarrok, beraz, beste biderik ez dugu herrira etorri eta hemendik ateratzeko: batetik Usurbil, bestetik Lasarte, eta gu beti bien bitarte. Endemas, zerrategiko bidea itxita oraintsu arte.

Kontua da Zubietak munduarekin lotzen duen bide guztia zuloz beteta dagoela. Joan den astean ia-ia zuloan utzi nuen gurgila, balaztak eta nik al dakit zer. Eta zuloak nonahi. Zulo txikiak eta zulo kurpil-jaleak. Zulo borobilak eta zulo luzeskak. Egia da, tarteka zuloak bete egiten dituzte. Asfalto, makadan edo auskalo zer pixka bat bota eta aurrera. Bidea zipritin beltzez osatua dugu. Bide tantaduna, bide nabarra. Bota eta hurrengora arte, dena amen batean, bada-epada ere.

Eta zuloekin batera bihurguneak –kurbak- ditugu, bateren batek bakarra eta oso luzea dela esaten badu ere, susto galantak ematen dizkigutenak.

Bereziki eskola profesionaletik Aliriko zubira doan bidea da arriskutsua. Eta profesionaletik irteera ematen dietenean, ordu arriskutsuena. Bide horrek Usurbilgo beste bidearekin bat egiten duen tokian ez da batere ikusten inor datorren, ez alde batetik, ez bestetik.

Beraz badu zer konpondua Zubietak. Eta konponketa horietako batzuk ez lirateke oso garestiak: ispilu batzuk egoki jarriak, esate baterako...

Baditu gauza onak ere egoera honek. Etxerako azken zatian, bide nagusitik gurera datorren horretan, ez asfaltorik eta ez porlanik dago: fundizioko zeparria batera lisatu gabea. Igeldoko montaña suizak ezer kenduko ez dion bidea... Kontua da batzuetan andrearekin haserre puntua izanik –etxera gatozela– autoari egurra ematea, eta bidearen alde latzenetik. Autoa hor hasiko da KLI, KLA, KLO, hautsi beharrea, dena perrahotsa eta burrundara, andrea eta umeak denak aidean... Plazer guztiak badute bere penitentzia, eta ez da giro izaten gero etxe barrenean.

Zubietak



**PELLO
ARANBURU**

Kalitatezko bertako produktuak

Uda guztiko eguzkiaren indarra izpi izpi bere barnean gorde duten hainbat fruitu: babarrunak, sagarrak, intxaurrak, artoa, kalabazak, etab. sasoi honetan jasotzen dira; laster iritsiko diren neguko egun ilunetan eguzki indarra ordezkatzen lagundu nahi baligukete bezala. Uzta garaia da!

Nekazal inguruarekin gero eta lotura gutxiago duen herria da gurea. Askotan egunero kontsumitzen ditugun produktuak non eta nola ekoiztuak izan diren ez dugu jakiten. Gaur egun edozein etxetan jaten dira Marokon ekoiztutako tomateak, Txileko sagarrak, Almeriako piperrak, Californiako intxaurrak, etab. Normalean, produktu hauek ekoizteko erabili diren ikuspuntu etiko eta ekologikoen inguruko informaziorik ez dugu eskuragarri izaten. Gehienak produktibitatearen ikuspegi itsutik ekoiztuak izaten dira, ekoizteko gehiegizko ongarri kimiko, pestizida etabarrez lurra, ura eta animaliak kutsatuz, lanesku merkea erabiliz... eta guregana iristeko bidaia luzeen ondorioz kutsatuak izanez.

Guzti hau ekiditeko beharrezkoa da produktua ekoizterakoan ingurunearekiko errespetua eta uztialekuaren gertukotasuna kontutan izatea. Honela, lortutako produktuak ingurugiroarekiko eta azkenean kontsumitzailearen osasunerako abantaila handiak izango bait ditu, besteak beste:

-Produktu freskoagoak, zapore eta bitamina gehiago.

-Inguruko paisaia eta kultura mantentzen lagundu.

-Kutsadura gutxitu.

















-Lurraren emankortasuna babestu.

-Inguruarekin eta ingurukoekin harremanak estutu.

Hona hemen Usurbilen, gaur egun, ekoiztu eta saltzen diren hainbat nekazal produktu.

OHARRA: Taula honetan azaltzen diren datuak telefono bidez eginiko galdeketa baten ondorio dira.

Ekoizle batzuk falta litezke, denekin ez baitugu harremanetan jartzetik lortu.

ARRAULTZAK 	Aintzi zahar Intxuintxabal Troia	Aundi Lartzandieta	Bizkarre Petritza zahar
OILASKOAK 	Lartzandieta		
TXERRIAK 	Errikoetxe	Ostatu	
TXEKORRAK 	Altzondo-Esnaola Intxuintxabal Urtinea	Berraiartza goiena Pikota gain Usasku handi	Enbillenea Santsonenea Zelaiandi
ARKUMEAK 	Esperantza	Igartzazabal	Txokolatenea
BEHI ESNEA 	Amiri behea Ibarrola txiki	Etxetxo Petritza zahar	Iarbe
ARDI ESNEA 	Igartzazabal		
SAGARDOTARAKO SAGARRAK 	Agerreazpi Arrillaga azpi Gorostidi Soroarte Usasku handi	Aldatxa Berritzabarrena Ibarrola handi Urkamendi Zuasti Arratzain	berri Etxeberri Santsonenea Usasku Zumitza
SAGARDOA 	Aginaga Arratzain Gorostidi Saizar	Aialdena Arratzain II Iruin Urdaira	Araeta Egiluze handi Olanonea
BARAZKIAK 	Apaolaza Bizkarre Galardi garaikoa Illunbe Lertxundi Ostatu Troia	Arpieta Eiza azpi Galdagorri Intxuintxabal Olaizola Petritza zahar Zuasti	Aundi Etxebeste Ibarrola handi Lastaola Olanonea Sari
BABARRUNAK 	Aldatxa Aundi Eiza azpi Etxebeste Illunbe Olanonea Santsonenea Urruzmendi	Arpieta Berraiartza bitartea Errementaldegi Galdagorri Intxuintxabal Petritza zahar Soroarte Zabalonea	Arrillaga azpi Bizkarre Etxeberri Ibarrola handi Kale Portu Usasku handi Zuasti
PIPERRAK 	Agiña piperrak Olanonea	Galdagorri Olarri	Illunbe Santsonenea
INTXAURRAK 	Arrillaga azpi		
URRAK 	Kale	Txara	
LORE ETA LANDAREAK 	Aramburu Zubeldia	Gorriti	Urtinea
EZTIA 	Agirresarobe	Bengoetxea	Lartzandieta

Honekin batera, produktu hobeak kontsumitzeaz gain, ondorengoek ere kontsumitu ahal izatea ziurtatuko dugu.

Denborarik galdu gabe,

Kontsumitzaile, bertako kalitatezko produktuak kontsumitu!

Nekazari, ingurunearekiko begirunez kalitatezko produktuak ekoiztu!

Produktu hauetako batzuk denda hauetan aurki genitzake:

- **Harategiak:** Alkorta, Arruti, Dia, Esnaola, Ramon, Txapartegi, Imanol Txapartegi.

- **Janari dendak:** Alkorta, Arrillaga, Dia, Eiza, Esnaola, Huerta, Latxa, Lurdes.

- Alkartasuna baserritarren kooperatiba

Kontsumitu herriko kalitatezko produktuak!



URRUTIRA JOAN GABE, BERTAN TOPATUKO DITUZU KALITATEZKO PRODUKTUAK

Atal honen egileak: Aitziber Matxain, Ametza Larrañaga. Usurbilgo Udalaren Nekazaritza eta Garapen Ekonomiko Sailaren babesean.

Sagar dultzea; sagarrak kontserbatzeko modu gozoa



OSAGAIK:

- Sagarrak
- Azukrea
- Limoi zukua

NOLA EGIN:

1. Sagarrak garbitu eta zatitu, harrak jandako edo kolpatutako puskak kenduz (Sagarraren azala eta bihotza inoiz ez kendu, hauetan baitago dultzea gogortzeko beharrezkoa den pektina).

2. Sagar zatiak ontzi batean jarri, beha-

rezkoa bada ur pixka bat bota (ez itsasteko) eta 20-30 minutu eduki irakiten, sagarrak bigundu arte.

3. Pasapurean pasa, bertan azala eta haziak apartatuko ditugu.

4. Lortu dugun purea pisatu.


5. 750gr azukre nahastu kilo bat pureri eta limoi erdi baten zukua kilo dultzeri.

6. 20-30 minutu eduki irakiten, nahastuz.

7. Ontzitaratu: dultzea irakiten dagoela kristalezko ontzietan sartu, segituan tapa egokia ipini eta buruz behera jarri ezker, esterilizazio eta kontserbazio egokia lortuko ditugu. Bestelako ontzietan jarri nahi badugu, kontutan izan gain azalean lizuna sortu dakiokela, hau saihesteko patarezt bustitako paper edo tela bat jarri diezaiogegu.

ZUZENKETA

Aurreko Nekazaritza eta Landalurre sailean idatzitako, "Sagardotarako sagarrak eta sagardoa" artikuluan *Kanpoko sagarra* terminoarekin gaizki ulertuak egon dira. Honekin sagardoa egiteko sagarra, baserrian ekoiztua ez zela adierazi nahi izan genuen.



PATRI

JATETXEA

- Eguzkeroko menuak
- Plater krutimatuak
- Ogintzetak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k k t k
t l tr k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Menuak asteazken zehar eta

ZENDOJA taberna

Kale nagusia 35
Tel: 943374021

asteburuetan Menu bereziak

Kultur Astea, NOAUA!ren eskutik

Euskararen normalizazioa sustatu eta euskarazko argitalpenak plazaratzearekin batera, kultur ekitaldiak antolatzea izan da NOAUA! Kultur Elkartearen zeregin nagusietakoa. Azken honi lotuta, azaro hasieran egingo den Kultur Aste oparoa aurkezteko moduan gara.

Duela bi urte egin bezalaxe, ekitaldi interesgarri osaturiko Kultur Astea prestatu dugulakoan gaude. Lau dira antolatu ditugun ekitaldiak: Josune Bereziarturen diaporama, "Euskaraz lardaskatzeko manerak" izeneko hitzaldia, "Euskara senzilloaren manifestoa" izeneko antzerkia eta Ttakunpa afrikar perkusio jaialdia.

Antzerkia ez baina gainontzeko ekitaldiak doan izango dira. Estimatzekoa da Udalak Kultur Aste honi eskaini dion babesa.



TTAKUNPA TALDEAK PERKUSIO AFRIKARRA ETA TXALAPARTA UZTARTZEN DITU ZUZENEKO IKUSKIZUNEAN. TTAKUNPA TALDEA AZARDAREN 6AN ARITUKO DA, PILOTALEKUAN, GAUEKO 22:30EAN.


Josune Bereziarturen balentria

Puntako kirolari bat izango da Kultur Asteko lehen gonbidatua: Josune Bereziartu ordiziarrak.

Ordizian jaio zen 1972. urtean. Bost urtez segidan, Espainiako kirol eskaladako kopa irabazi zuen. Bulderreko Munduko Kopa ere irabazi zuen. 1998. urtean Honky Tonky 8c bidearekin munduko marka lortu zuen.

2000. urtean bere marka gáinditu zuen Honky Mix 8c + bidearekin. Josunek 8c mailako 8 bide ditu, hiru 8c+ mailakoak eta bat 8c+9a mailakoa. Gaur egun, munduko eskalatzaile onena da askoren iritziz.

Nazioarteko maila gorena duten bideetan, Goierri aldeko eskalatzaile handi honen irudi harrigarriak biltzen ditu diaporamak.



NOIZ: Azaroaren 3an, 20:00etan. NON: Udarregi Ikastolan.

Knk l
 - L ntz r
 - Gz n zk n rr p
 ll ur ntz k
 - Fix r k h r
 izuzun k
 Zubiaurrenea, 3 33 17 7

txirriStra
TABERNA
 - Plater konbinatuak
 - Ogitarteak
 - Pintxoak
 Kontseju zaharra, 13
 Tel: 943 36 04 66

ARRAINDEGIA
PELLO
 Txiki, Txiki, Txiki
 Txiki, Txiki, Txiki
 Txiki, Txiki, Txiki

Umoreda festa Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta eta Antton Olariagarekin

Zazpiak Batman taldeko kideen gaua izango da azaroaren 4koa. Azken hilabeteotan, "Euskaraz lardaskatzeko manierak" umoreda hitzaldia eskaintzen aritu dira Euskal Herrian barrena. Azaroaren 4an Udarregin izango dira.

Euskaraz modu erakargarriagoan bizitzeko premia dugula aldarrikatu izan dute Zazpiak Batman taldeko kideek.

Alegia, euskaldunok eta euskarak aurrera egingo badugu,

ezinbestekotzat jotzen dute euskaldunon ekoizpen sozio-kulturalak erakargarriak egitea. "Euskaraz gozatzeko, ziria sartzeko, maitatzeko, adarra jotzeko, dibertitzeko eta abar balio ez badigu, zertarako nahi dugu?" entzun izan diogu Kike Amonarrizi.

Azaroaren 4an Udarregira hurbiltzen direnek une atseginak pasako dituzte.

Hizlariak: Antton Olariaga, Asisko Urmeneta, Kike Amonarriz.



ENTZULEA PARTE HARTZAILEA ERE BADA
"EUSKARAZ LARDASKATZEKO MANERAK"
IZENAKO HITZALDIAN .

NOIZ: Azaroaren 4an, 20:00etan. NON: Udarregi Ikastolan.

Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreen umorea eta ironia

Mundu honetan ezer ez da perfektoa, euskera ere ez (barka digula (diezagula) Bermat Etxeparek). Ilargiak bere alde iluna duen bezala, euskaldunizazioak "kalte kolateralak" dakartza. Gutun hau izenpetzen dugunak (ok), munduko euskaldunberririk zaharrenak, kalte horien biktima gara. Orain dela berrogei urte hasi ginen

ikasten, eta oraindik "ari gara".

Honela dio antzezlan honen sinopsiak. Kultur Aste honetan, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreen umore onaz gozatzeko aukera izango dugu. Udarregiko aretoak jasoko du antzerki saio hau.

Sarrerak salgai daude Bordatxon, Aitzagan eta NOAUA!ko egoitzan (bazkideentzat, sarrera 3 euro).



"KONTENEDORE BATEN ISTORIDAK" AZALDU
ETA GERO, "EUSKERA SENZILLOAREN MANI-
FESTOAREKIN" DATOZ BIKOTEATROKO KIDEAK

NOIZ: Azaroaren 5ean, 22:30ean. NON: Udarregi Ikastolan.



MAHUKA

Q z n t m kum zk n
m k rr uzt
h m n urk tuk uzu

Etxeak 1, 3
Tlf: 33 11

gorriti
EDARITEGIA

Kafe berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70

Lourdes Jauregiberri, GBBko kidea: “Herri kontsulta egingo da, ez dut zalantzarik”

Ikasturte berriko agenda politikoa baldintzatu du Ibarretxe Planak, Eusko Jaurlaritzan agintean den hirukoak babesten duen Estatutu Berrirako Proposamenak. Politikaren lehen lerroan da, askoren artean, *Gipuzko Buru Batzarreko* (EAJ-PNV) exekutibako kide den Lourdes Jauregiberri. Bere ustetan, herri hau “jauzi bat emateko atarian” dago.

NOAUA! Euzko Alderdi Jeltzalearen *Gipuzko Buru Batzarreko* (GBB) kide zara. Zeintzuk dira zuri dagozkizun bete-behar nagusiak?

